

**INGURUMENEN TOKIKO FOROAREN  
BILERAREN AKTA  
(23.02.10)**

LEHENDAKARIORDEA  
INGURUMEN ZINEGOTZIA  
KELTSE EIGUREN andrea

INGURUMEN TEKNIKARIA:  
JOSU ATEKA jauna

INGURUMEN AHOLKULARIA:  
JULEN REKONDO jauna (Ingurune)

BERTARATU DIRA:  
PATXI DIAZ jauna (Ingurumen eta Ibilbide Ekologikoen arloan ospe handiko pertsona).  
CARLOS ARANA jauna (Fegevol).  
XABIER BUENETXEA jauna (Ingurumen eta Ibilbide Ekologikoen arloan ospe handiko pertsona).  
AMELIA ZORRILLA andrea (Basozaleak).  
ANABEL DORADO Andrea (Bizkel).  
MAITE IBARBENGOCHEA andrea (Getxo Enpresa eta Merkataritza).

Arantza Cabeza andreak, Koldo Nabaskues jaunak, Tomi Etxeandía jaunak, Txema Gorostiaga jaunak eta. M<sup>a</sup> Antonia Antón andreak bertaratu ez izanagatik aldeztatik aurretik barkamena eskatzen dute  
Getxon, 2010eko otsailaren 23an, 19:00etan, Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa bildu da, eta letra larriz aipatutakoak bildu dira.

**EGUNEKO GAI-ZERRENDA**

**1. Ingurumeneko Tokiko Foruak 2010eko urtarrilaren 26an egindako bilerako akta.**

Ez zaio objektuorik egin Ingurumeneko Tokiko Foruak 2010eko urtarrilaren 26an egin zuen bilerako aktari; hori dela eta, akta onartu dute, aho batez.

**2. Getxoko Iraunkortasunerako Jarduera Plana ebaluatzea, 2009. urterako antolatu diren jardueren dagokionez.**

Laguntza teknikoak esan du aurreikusita zegoela foru kideei 2009. urterako antolatu diren jardueren ebaluazio txostena bidaltzea, hainbat egun lehenago, baina ezinezkoa izan dela Udaleko Atal Teknikoekin egin beharreko bilerak atzeratu direlako. Edonola ere, Iraunkortasun adierazleek 2009. urtean izandako eboluzioa jorratuko dute datorren bileran, martxoaren 23an, eta arazoa konpontzen saiatuko dira.

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE  
MEDIO AMBIENTE  
(23.02.10)**

VICEPRESIDENTE  
CONCEJALA DE MEDIO AMBIENTE  
Dña. KELTSE EIGUREN

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:  
D. JOSU ATEKA

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:  
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ASISTENTES:  
D. PATXI DIAZ (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente e Itinerarios Ecológicos).  
D. CARLOS ARANA (Fegevol).  
XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente e Itinerarios Ecológicos).  
D. AMELIA ZORRILLA (Basozaleak).  
Dña. ANABEL DORADO (Bizkel).  
Dña. MAITE IBARBENGOCHEA (Getxo Empresarial y Comercial).

Excusan previamente su inasistencia Dña. Arantza Cabeza, D. Koldo Nabaskues, D. Tomi Etxeandía, D. Txema Gorostiaga y Dña. M<sup>a</sup> Antonia Antón.

En Getxo, a 23 de febrero de 2010. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

**1. Acta de la reunión del Foro Local de Medio Ambiente celebrada el 26 de enero de 2010.**

No hay ninguna objeción al acta de la reunión del Foro Local de Medio Ambiente celebrada el pasado 26 de enero de 2010, por lo que es aprobada dicha acta por unanimidad.

**2. Evaluación del Plan de Acción para la Sostenibilidad de Getxo en lo que concierne a las acciones programadas para el año 2009.**

La asistencia técnica informa que estaba previsto enviar a los miembros del Foro con varios días de antelación el informe de evaluación de las acciones programadas para el año 2009, pero no ha sido posible debido a que las reuniones con las diversas Áreas Técnicas Municipales se han retrasado. No obstante, de cara a la evolución de los Indicadores de Sostenibilidad en 2009 que se abordará en la próxima reunión a celebrar el 23 de marzo, se tratará de

subsanan este problema.

Gero, 2009. urterako antolatu diren jarduerak berrikusi dira, banan-banan, eta ohar batzuk eman dira.

A continuación, se va revisando acción por acción de las programadas para el año 2009, y se van haciendo una serie de comentarios.

**3.1.1. Eremu publikoari lehenasuna ematea hiri antolamenduko elementu antolatzaile gisa.** Ekintza horri dagokionez, Bizkeleko Anabel Dorado ordezkariak esan du mugikortasun murriztua duten pertsonentzako irisgarritasuna aintzat hartu dela hainbat parke eta eremu publikoetan, baina beste batzuetan, ordea, ezetz, Erromoko Txabarri Zuazo plazan, besteak beste. Azalpenen bat eman da baina Hirigintza Sailari kontsulta egitekotan geratu dira.

En relación con la acción **3.1.1. Priorizar el espacio público como elemento ordenador de los desarrollos urbanos**, la representante de Bizkel, Dña. Anabel Dorado, plantea, que si bien en algunos parques y espacios públicos se han tenido en cuenta la accesibilidad para personas de movilidad reducida, en otros no, como cree ella que ha ocurrido en la plaza Txabarri Zuazo de Romo. Hay algún comentario al respecto, pero se deja pendiente de consulta al Área de Urbanismo.

Bestetik, Xabier Buenetxea jaunak **4.3.2. Bizikleta garraibide gisa sustatzeko (Getxo bizi mailegu zerbitzua) ekintza** planteatu du, ea Uribe Kostako zerbitzuarekin bat egin dezakeen. Ingurumeneko zinegotziak eta teknikariak esan dute ez dela bateragarria; izan ere, Uribe Kostako zerbitzuaren helburu nagusia da zonako hondartzen arteko ibilbidea egitea, eta, Getxoko zerbitzua, ordea, garraibide gisa planteatuta dago, bereziki, udalerriko toki horien artean mugitzeko.

Por otra parte, D. Xabier Buenetxea, plantea en relación con la acción **4.3.2. Potenciar el uso de la bicicleta como medio de transporte. (Servicio de préstamo de Getxobici)**, si se puede unir al servicio de Uribe Kosta. Tanto la concejala de Medio Ambiente como el Técnico de Medio Ambiente, plantean que no es compatible, ya que el servicio existente en Uribe Kosta tiene como fin primordial un recorrido entre las playas de la zona, mientras que el servicio en Getxo está planteado principalmente como medio de transporte, para realizar los desplazamientos entre los distintos puntos del municipio

**4.3.4. “Autorik gabeko hiria” eta “Mugikortasunaren Astea” jarduerarekin bat egiten duen mugikortasun iraunkorreko jarduera programa ezartzen jarraitzeko** ekintza jorratu dute eta Bizkel Elkarteko erakundeko ordezkariak esan du, aurreko batean bezala, bere elkarte kideak prest daudela ekitaldi horietan antolatu beharreko jardueretarako. Josu Ateka Ingurumeneko teknikariak erantzun dio bere elkarteak ere gauzak proposa ditzakeela, ez dela zertan Udala elkartearekin harremanetan jarri arte itxoin behar.

Cuando se aborda la acción **4.3.4. Continuar con la implantación de un programa de actividades de movilidad sostenible coincidiendo con la celebración de la jornada europea “La ciudad sin mi coche” y la Semana de la Movilidad**”, la representante de la Asociación Bizkel, comenta, lo que ya lo ha hecho en alguna otra ocasión, y es que se cuente con los miembros de su asociación para posibles actividades a organizar en dichos eventos. El Técnico de Medio Ambiente, D. Josu Ateka, le responde que también desde su Asociación pueden proponer cosas, no hay porqué esperar a que el Ayuntamiento se dirija a la asociación.

Carlos Arana jaunak elbarrientzako aparkalekuen azken urteetako bilakaera azaldu du, uste baitu une honetan hainbat tokitan zailagoa dela aparkatzea, aurreko urteetan baino. Ziurtatu du Getxo ez dela Euskal Herriko puntako udalerrietako bat, arlo horretan, eta ez dela %8ko portzentaje legala betetzen. Halaber, esan du Bilbon eta Barakaldon, adibidez, txartel urdinarekin edozein tokitan aparka daitekeela, Getxon ez bezala.

D. Carlos Arana, en relación con las plazas de aparcamiento para minusvalidos plantea cuál ha sido su evolución en los últimos años, ya que considera que en estos momentos le cuesta más aparcar en determinados lugares que en años anteriores. Asegura que Getxo no es de los municipios punteros en esta materia en el País Vasco, y que no se cumple el porcentaje legal establecido, que es del 8%. Asimismo, señala que en Bilbao y en Barakaldo, por ejemplo, con tarjeta azul se puede aparcar en cualquier sitio, y eso no ocurre en Getxo.

Esan diote gai bera planteatu zela iaz, eta Azpiegitura eta Zerbitzuetako Sailaren arduradun teknikoak emandako datuek ez zuten errealitate hori erakusten, ezta gutxiago ere. Zehatz-mehatz, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Saileko arduradun teknikoaren arabera, Getxoko udalerrria elbarrientzako aparkaleku gehien dituen udalerrietako bat da, dituen biztanle kopuruaren arabera.

Se le comenta que esta misma cuestión planteó el año pasado, y los datos facilitados por el responsable técnico del Área de Infraestructuras y Servicios no reflejaban esa realidad, ni mucho menos. Concretamente, según el responsable técnico del Área de Infraestructuras y Servicios, el municipio de Getxo es uno de los municipios con más plazas de aparcamiento para minusvalidos en proporción a su número de habitantes.

Edonola ere, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Saileko datuak eskatzea erabaki zen, martxoan egingo den fororako.

No obstante, se acordó en solicitar los datos existentes al Área de Infraestructuras y Servicios para el próximo Foro a celebrar en el mes de marzo.

Bestetik, Anabel Dorado andreak, “Merkataritza berdea” proiektuari dagokionez, esan du jarduera zerrendan ez duela proiektuari buruzko oharrik ikusi. Ingurumen Saileko Keltse Eiguren zinegotziak erantzun du proiektua duela gutxi hasi dela. Eta Jarduera Plana ontzat eman zela 2008an. Edonola ere, Keltse Eiguren andreak gaiari buruz eskura duen informazioa forora ekartzeko konpromisoa hartu du.

Por su parte, Dña. Anabel Dorado, en relación con el proyecto “Comercio Verde”, plantea que no ha visto en el listado de acciones, comentar nada, respecto a este proyecto. La concejala de Medio Ambiente, Dña. Keltse Eiguren, le responde que dicho proyecto acaba de comenzar hace poco. Y que el Plan de Acción fue aprobado en 2008. No obstante, Dña. Keltse Eiguren se compromete a traer a este Foro la información que tenga al respecto.

Halaber, hainbat jardueren bioaniztasunaren gain eragina izan dezakete, nahiz eta atzera bota diren jada, hasiera batean La Galean proiektatu zen bidegorria, besteak beste; eta, bereziki, Xabier Buenetxea jaunari galdetu diote ea bileraren batean jorratu daitekeen gaia, baita dauden beste eraginak ere, eta nola eragiten dioten tokiko faunari eta landarediari. Xabier Buenetxea jaunak baietz erantzun du

También surge el posible impacto que puede tener sobre la biodiversidad determinadas acciones que, aunque ya están desechadas, como que el carril bici que se proyectó en un principio por La Galea, y concretamente se le plantea a D. Xabier Buenetxea si se podría abordar en alguna reunión este tema, así como otros impactos que existen y cómo afectan a la fauna y a la vegetación del lugar. D. Xabier Buenetxea responde positivamente.

Amaitzeko, Patxi Díaz jaunak esan du ez direla hainbat datu azaldu, egin diren ibilbide ekologikoak eta ingurumeneko ikasgelara bertaratu diren bisitari kopurua, adibidez; erantzun diote gai horiek iraunkortasun adierazleei dagokiela eta martxoko bileran jorratuko direla.

Finalmente, D. Patxi Díaz pregunta que no se han dado en la exposición datos sobre los itinerarios ecológicos realizados, el nº de visitantes al aula ambiental, etc., y se le responde que tales cuestiones corresponden a los Indicadores de Sostenibilidad y se tratarán en la reunión correspondiente del mes de marzo.

### 3. Galde-eskeak.

### 3. Ruegos y preguntas.

José Ateka Ingurumeneko teknikariak Getxoko hiri hondakinen 2009ko kudeaketari buruzko datuak eman ditu, aurreko bileran erabakitako moduan. (2009ko datuen laburpena akta honekin batera doa).

D. José Ateka, técnico de Medio Ambiente, informa, tal como se había acordado en la anterior reunión, de los datos que ha habido en el año 2009 acerca de la gestión de los Residuos Urbanos en el municipio de Getxo. (Un resumen de los datos del 2009, se adjunta a esta acta).

José Ateka jaunak ale positibo gisa esan du 2009an sortu diren hondakinen % 22,78a birziklatu dela, eta 2008 urtearekin alderatuta % 2,78a igo dela. Eta, bestetik, 2009. urtean Jata eta Zabartegi zabartegira doazen hondakinen %2,83 gutxiagotu da, 2008. urtearekiko. Murrizketa horren arrazoia krisi ekonomikoa da.

D. José Ateka señala como un dato positivo que los residuos reciclados en 2009 han resultado ser de un 22,78% sobre el total de los residuos generados, que comparando con los habidos en 2008, supone un aumento del 2,78%. Y que otra parte, se ha reducido en 2009 respecto a 2008 un 2,83% los residuos que van destinados al vertedero de Jata y a Zabagarbi, reducción que tiene que ver sobre todo con la crisis económica en que estamos metidos.

Patxi Díaz jaunak galdetu du ea jakina al den zenbat hondakin doazen Zabalgargira eta zenbat Jatara. José Ateka jaunak erantzun du ez dakitela eta ia ezinezkoa dela jakitea.

D. Patxi Díaz pregunta si se sabe qué cantidades van a Zabalgargi y al vertedero de Jata. D. José Ateka responde que no sabe y que es casi imposible conocerlo.

Halaber, galdetu dute ea pila gutxiago jaso diren eta Ingurumeneko teknikariak ezetz erantzun dio, azkeneko 2 edo 3 urteetan behintzat, nahiz eta duela urte jaitsiera eman zen.

También se pregunta si la recogida de pilas no ha disminuido y el técnico de Medio Ambiente responde que no, al menos en los 2 ó tres últimos años, aunque si se dio un bajón hace unos cuatro años.

José Ateka jaunak esan du orokorrean birziklatzeko hondakinak areagotu direla 2009. urtean, 2008.

En general, señala D. José Ateka, la recogida de cada uno de los residuos para su posterior reciclaje, salvo en el

<p>urtearekiko, paperezko hondakinak eta aparatu tekniko eta elektronikokoak izan ezik, kopuru txiki batean bakarrik areagotu baitira.</p>	<p>papel y en los RAEES en una pequeña cantidad, ha aumentado en 2009, respecto a 2008</p>
<p>Gero, Keltse Eiguren ingurumeneko zinegotziak esan du datorren martxoaren 27an “Planetaren ordua” ospatuko dela, eta argiak itzaliko direla denbora jakin batean, klima aldaketaren aurkako ekimen gisa, iaz egin zen modu berean.</p>	<p>A continuación, la concejala de Medio Ambiente, Dña. Keltse Eiguren, informa que el próximo sábado 27 de marzo se celebra “La Hora del Planeta”, consistente en apagar las luminarias durante un tiempo, como una iniciativa en contra del cambio climático, la igual que se hizo el año pasado.</p>
<p>Keltse Eiguren andreak esan du aztertzen ari direla udaleko zein eraikinetan edo zonatan itzali daitezkeen argiak; izan ere, toki batzuetan ezinezkoa da, segurtasun arrazoiak direla eta.          Hasiera batean, Udaletxeko eta Santa Clara eraikineko argiak itzaltzea pentsatu dute, alboan baitaude.</p>	<p>Dña. Keltse Eiguren informa que están estudiando en qué edificios o zonas municipales se pueden apagar las luces, ya que en algunas no es posible, por razones de seguridad.          En principio, han pensado que se podrían apagar las luces de la Casa Consistorial y el Edificio Santa Clara, que está al lado.</p>
<p>Hurrengo bilera martxoaren 23an izango da; bileraren deialdian esango da bilera non egingo den.</p>	<p>La próxima reunión tendrá lugar el 23 de marzo, y en la convocatoria de dicha reunión aparecerá el lugar de la reunión.</p>
<p>Bilera amaitu da, Getxon, 20:30ean</p>	<p>En Getxo, a las 20:30 horas se da por finalizada la reunión.</p>